

Mirarien zain?



**MIKEL OTERO
GABIRONDO**
LEGE BILTZARKIDEA

Duela gutxi, larrialdi klimatikoaren sortzen duten isuriaren azken datu ofizialak atera ditu Jaurlaritzak, 2021ekoak. Isuriek %8 egin dute gora berriro. Are gehiago, dagoeneko badakigu 2022. urtean berriro gora egin dutela, Europar Batasunak araututako sektoreen isuriek %15 egin baitute gora (araututako sektoreak isuri guztien %40tik gora dira). Beraz, pandemia garaiko isuriaren murrizketak berdindu eta pasa ditugula esan dezakegu.

Argi luzeagoa ipinita, azken hamarkadan isuriek %9 egin dute behera. Datu onak? Bada, erritmo honi jarraiki, 24 hamarkada behar ditugu ditxosozko neutraltasun klimatikora heltzeko, non isuritakoa xurgatutakoarekin konpentzatuko litzatekeen. Baina 24 hamarkada ez, 24 urte ditugu helburu hori betetzeko. Erritmoa hamar aldiz biderkatu behar da. Erraz esaten da.

Klima larrialdiaren aurkako borroka aise galtzen ari gara. Bai komunitate global gisa zein euskal komunitate gisa. Baina berriro gogorarazi nahi dut borroka hau ezin dugula galdu, galtzeak dena galtzea ekarriko luke eta. Gauzak horrela, irtenbideak mamitzen baino errudunak seinalatzen aritzeko joera zabaldu horrek gero eta atsekabe handiagoa sortzen dit. Klima aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenak aspaldi

argitu zuen auzia, erantzukizun amankomunak baino ezberdinak ditugu, eta euskaldunok, kapitalismo globalaren alde pribilegiatuan bizi izan garen neurrian, erantzukizun berezia dugu.

Antzerki klasikoan, *deus ex machina* adieraz ezagutzen zen trikimailua erabiltzen zen muturreko egoerei irtenbidea emateko. Gidoiarekin inolako loturarik gabe, makina baten laguntzaz zerutik jainko bat ateratzen zen egoera katramilatu bati irtenbidea emateko. Oraindik ere hainbat jende “*deus ex machina* teknologiko” baten esperantzara kateatzen badu ere, dagoeneko argi dago esfortzu eraldatzaile amankomun eta jarraitu bat besterik ez zaigula geratzen irtenbide gisa.

Egin behar denaren inguruan zirriborro batzuk baditugu. Badakigu kontsumo material eta energetikoak asko murriztu behar ditugula, badakigu baliabide fosilak erabiltzeari uko egin behar diogula, badakigu berriztagarriak hedatu behar ditugula. Baina oraindik inteligentzia kolektiboaren erabateko aktibazioa behar dugu ibilbidea mamitzeko. Deliberatu dezagun prozesu honen xehetasunen inguruan, har ditzagun erabakiak eta egin dezagun bidea behin goz, dena galtzearen errua norena izan zen argitzeak ez baitigu inolako kontsolamendurik emango eta. ●

Tropikal



ITXARO BORDA
IRAKASLEA

Bero handien ondotik, euriak etorri dira. Euri mantso, lodi eta beroak. Besoak zabalik hartu ditugu Aturri hegi hauetan. Bat-batean, horituak ziren bazterrak berdetu zaizkigu, adinekoak eta haurrak berriz ikusi ditugu arratsaldeetan paseatzen, ulu burrunbariak eta mustika ziztariak esku zainartez kalitzen zituztela. Batzuek, Atlantikoan, tornado gris eta bihurriak filmatu dituzte, aroa aldatzen dabilelako seinale. Zenbaiten ustez tropikalitasun zerbaiti buruz goaz. Zanza-zanza...

Artistek hirugarren begia badutela ezin uka. Gauzak, garen oinarrizko biz-

tanleok baino anitzez lehenago asmatzen dituzte. Bizkitartean, eguraldi goha eta sapatu honek, 1980ko hamarkadan Hertzainak talde mitikoak kantatzen zituen etorkizuneko Euskadi haren ezaugarri koloretsuak oroitarazten dizkit niri: “Egun batean Euskadi izango da libre eta tropikala” abesten zuten, Bermeoko iguana pipilean eta Gernikako Palmondoa arraiki irudikatuz. Talde gasteiztarraren “astakeria” musikala egia bilakatzen ari da, behiala bihotzean baizik ez geneukan tropikalitasun horrez lurraldea troxatuz.

Piña Colada bana? ●